## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

## Zk-5918

245/2001 DEKRETUA, urriaren 23koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren funtzionamendurako behin-behineko xedapenak ezartzen dituena.

Irailaren 17ko 19/2001 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian jartzen duenez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila Jaurlaritzako zuzendaritza batzuetako unitate eta organoek osatuko dute. Gainera, sail horrek egitura organikorik ez duela kontuan hartuta, Etxebizitza Sailburuordetza, Gizarte Ongizate Sailburuordetza eta Zerbitzu Zuzendaritza sortu ditu behinbehingoz, lehenengo azken xedapenean aurreikusitakoa egin arte.

Hala ere, aurreikuspen hori ez da nahikoa Sailak inmigrazioaren alorrean zuzen jardun dezan. Izan ere, arlo berria da eta gainerako gaien aldean, badu nolabaiteko egitura bat, lehen xedapen gehigarriak sail horretan sartu dituen organo eta unitateen artean.

Bestalde, Sailari izendatutako alorretan Jaurlaritzaren jarduna hasiera-hasieratik erabat eraginkorra eta gainerako sailen jarduerarekiko egokia izan dadin, beharrezkoa da sailburua beharrezko laguntza-egituraz hornitzea berehala.

Horrek guztiorrek dagozkion aurreikuspenak behinbehingoz hartzea eskatzen du, erregelamendu organikoa onartzeko zain egon gabe.

Ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, lehendakariak onartuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko urriaren 23an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua*.– Kabinetearen Zuzendaritza.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak Kabinetearen Zuzendaritza baten zuzeneko laguntza izango du. Zuzendaritza hori sailburuaren mendeko zuzena eta hierarkikoa izango da, eta Jaurlaritzako zuzendariei oro har izendatzen zaizkienez gain, egiteko hauek izango ditu:

a) Sailburuaren lan-programaren plangintza eta segimendua egitea eta sailburuari zuzenean laguntzea.

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

## N°-5918

DECRETO 245/2001, de 23 de octubre, por el que se establecen disposiciones provisionales para el funcionamiento del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

El Decreto 19/2001, de 17 de septiembre, establece en su Disposición Adicional Primera que el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales estará integrado por los órganos y unidades de determinadas Direcciones del Gobierno. Además, habida cuenta de la carencia de estructura orgánica de dicho Departamento, crea con carácter provisional las Viceconsejerías de Vivienda y Bienestar Social y la Dirección de Servicios, en tanto se lleve a efecto lo previsto en la Disposición Final Primera.

Sin embargo, tal previsión no basta para permitir un correcto funcionamiento del nuevo Departamento en materia de inmigración, por tratarse de un área nueva que, a diferencia del resto de materias, ya cuenta con algún tipo de estructura entre los órganos y unidades que la Disposición Adicional Primera integra en dicho Departamento.

Por otra parte, la necesidad de que la acción del Gobierno, en las materias atribuidas al Departamento, pueda desarrollarse desde el primer momento con plena eficacia y con adecuación a la desplegada por el resto de Departamentos, exige dotar al Consejero de la estructura de apoyo necesaria sin mayor dilación en el tiempo.

Todo ello hace preciso adoptar, con carácter provisional, las previsiones correspondientes, sin esperar a la aprobación del oportuno reglamento orgánico.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 23 de octubre de 2001,

DISPONGO:

*Artículo 1*.– Dirección del Gabinete.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales cuenta con la asistencia inmediata de una Dirección del Gabinete, bajo su dependencia directa y jerárquica a la que corresponde, además de las que con carácter general se atribuye a los Directores del Gobierno, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) El apoyo directo, la planificación y seguimiento del programa de trabajo del Consejero, con especial atención a los actos de representación institucional del mismo.

b) Sailburuaren kanpo-jarduerak antolatzea, bereziki, Eusko Legebiltzarrarekiko eta Arartekoarekiko harremanak, eta Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako erakunde eta instituzioekiko harremanak, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren eskumenei kalterik egin gabe, betiere.

c) Sailaren jardute-eremuei buruzko kexak eta iradokizunak jasotzea eta herritarrei informazioa emateko egitekoak koordinatzea.

d) Komunikabide sozialekiko harremanak eta protokoloa.

e) Jaurlaritzaren Kontseiluaren eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordearen esku utzi beharreko gaiei buruzko azterlana, prestakuntza eta laguntza ematea sailburuari.

f) Sailak sustatzen dituen kongresu, mintegi, jardunaldi, hitzaldi eta gainerako ekintza publiko eta pribatuak antolatzea.

g) Sailaren argitalpenak kudeatzea eta zabaltzea, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren eskumenei kalterik egin gabe, betiere.

*2. artikulua.*– Inmigrazio Zuzendaritza.

Inmigrazio Zuzendaritza Gizarte Ongizate Sailburuordetzaren mendeko zuzena eta hierarkikoa izango da, eta Jaurlaritzako zuzendariei oro har izendatzen zaizkienez gain, egiteko hauek izango ditu:

a) Inmigrazioaren alorrean estrategia propio bat zehaztea Euskal Autonomia Erkidegorako.

b) Inmigrazioaren alorreko jarduerak planifikatzea eta horri buruzko araudien proiektuak prestatzea.

c) Etorkinak gizartean txertatzeko eta gizarte-babeseko sistemetan sartzeko ekintzak eta neurriak proposatzea.

d) Inmigrazioaren alorrean beste herri-administrazio batzuekin eta Estatuarekin koordinatzeko bideak eta bitartekoak proposatzea, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren eskumenei kalterik egin gabe, betiere.

e) Etorkinak hartuko dituzten bizilagunak sentsibilizatzeko neurriak eta ekintza asoziatibo eta kulturartekoak laguntzeko neurriak proposatzea eta gauzatzea.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Irailaren 17ko 19/2001 Dekretuaren lehenengo azken xedapenean ezarritakoaren arabera, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak erregelamendu organikoaren proiektu bat aurkeztuko dio lehendakariari, onar dezan. Proiektuan, Sailaren organo guztien behin betiko egitura zehaztuko da, dekretu ho-

b) La organización de las actividades externas del Consejero y, en particular, las relaciones con el Parlamento Vasco, el Ararteko y demás Organismos e Instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco y del Estado, sin perjuicio de las competencias que ostenta la Vicepresidencia del Gobierno.

c) La coordinación del ejercicio de las funciones de información general al ciudadano y la recepción de quejas y sugerencias en relación con las áreas de actuación del Departamento.

d) El protocolo y las relaciones con los medios de comunicación social.

e) El estudio, preparación y asistencia al Consejero respecto a los asuntos que deban ser sometidos al Consejo de Gobierno y a la Comisión Delegada para Asuntos Económicos.

f) La organización de los Congresos, Seminarios, Jornadas, Conferencias y demás actos públicos y privados que promueva el Departamento.

g) La gestión de las publicaciones del Departamento, así como su distribución, sin perjuicio de las atribuciones que le corresponden al Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

***Artículo 2.***– Dirección de Inmigración.

A la Dirección de Inmigración, dependiente directa y jerárquicamente de la Viceconsejería de Bienestar Social, le corresponde, además de las que con carácter general se atribuye a los Directores del Gobierno, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La definición de una estrategia propia para la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de inmigración.

b) La planificación de las actuaciones en materia de inmigración y la elaboración de proyectos normativos al respecto.

c) La propuesta de acciones y medidas destinadas a lograr la integración social de las personas inmigradas y su incorporación a los sistemas de protección social.

d) La propuesta de mecanismos e instrumentos de coordinación con el Estado y otras Administraciones Públicas en materia de inmigración, sin perjuicio de las competencias de la Vicepresidencia del Gobierno.

e) La propuesta y ejecución de medidas de sensibilización de la población de acogida y de apoyo a las actividades asociativas e interculturales.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– De conformidad con lo previsto en la Disposición Final Primera del Decreto 19/2001, de 17 de septiembre, el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales presentará al Lehendakari para su aprobación un proyecto de reglamento orgánico en el que se determinará la configuración definitiva de todos los órganos del

netan sortutakoena ere bai, dekretu hartan ezarritako irizpideen arabera.

*Bigarrena.–* Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dekretu honetan agindutakoa betetzeko behar diren eragiketak egingo ditu aurrekontuetan.

*Hirugarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko urriaren 23an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Departamento, incluidos los creados en este Decreto, con arreglo a los criterios allí establecidos.

*Segunda.–* El Departamento de Hacienda y Administración Pública realizará las operaciones presupuestarias necesarias para dar cumplimiento a lo dispuesto en este Decreto.

*Tercera.–* El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de octubre de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### EUSKO LEGEBILTZARRA

### Zk-5919

EBAZPENA, 2000ko otsailaren 3koa, Eusko Legebiltzarreko Mahaiarena, Eusko Legebiltzarraren 2000rako lan-eskaintza publikoa onesten duena. (Aldaketa) (06/25.01.00.0018).

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, 2001eko urriaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Legebiltzar Administrazioko Kontu-hartzailetza Nagusia eta Ekonomi Gaiak sailean dagoen teknikari-administrari lanpostua betetzeko karrerako funtzionario bat atxikitzea.

Atxikipen horren ondorioz, aldatu egin da Eusko Legebiltzarraren 2000rako lan-eskaintza publikoa (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofiziala, 36. zk., 2000ko otsailaren 22koa), txanda mugatuan (barne-sustapena) eskaintzen zen lanpostua eskaintza horretatik kenduz. Mahaiak, beraz, agintzen du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila aldaketa horren berri.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria,
JUAN M.ª ATUTXA MENDIOLA.

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### PARLAMENTO VASCO

### N°-5919

RESOLUCIÓN de 3 de febrero de 2000, de la Mesa del Parlamento Vasco, por la que se aprueba la oferta de empleo público del Parlamento Vasco para 2000. (Modificación) (06/25.01.00.0018).

La Mesa del Parlamento Vasco, en sesión celebrada el día 2 de octubre de 2001, acordó la adscripción de un funcionario de carrera al desempeño de la plaza de Técnico Administrativo que figura en Intervención General y Asuntos Económicos de la Administración parlamentaria, con efectos del día 15 de octubre de 2001.

Como consecuencia de la citada adscripción, se modifica la oferta de empleo público del Parlamento Vasco para 2000 (Boletín Oficial del País Vasco n.º 36, de 22 de febrero de 2000), mediante la supresión de tal plaza, que se ofertaba en turno restringido (promoción interna), y se ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco y en el Boletín Oficial del País Vasco.

El Presidente del Parlamento Vasco,
JUAN M.ª ATUTXA MENDIOLA.